



NIK, ALEXANDER MARAÑON MUÑOZ, ZUMAIA UDALEKO IDAZKARIAK

ZIURTATZEN DUT

2023ko maiatzaren 11ko Ezohiko Osoko Bilkuran ondorengo irizpena onartu zela ondorengo botoekin (9 aldeko botoak -6 EH Bildu; 2 EAJ-PNV eta 1 ES-SV)

“ZUMAIAKO PLANGINTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETARI, UDALERRIKO TURISMO-OSTATUKO ESTABLEZIMENDUEN HIRIGINTZA-ANTOLAMENDUARI DAGOKIONARI, HASIERAKO ONARPENA EMATEA.”

LEHENA. Hasiera batean onestea Zumaiako Plangintzako Arau Subsidiarioen dokumentuaren aldaketa eta “Lurraldearen egitura orokorra. Lurzoruaren kalifikazioa eta erabilera orokorrak” 5.12 antolamendu-planoaren aldaketa, ERDUK (Estudio de Renovación y Desarrollos Urbanos SL) udal-enkarguz idatzia, udalerriko turismo-ostatuko establezimenduen hirigintza-antolamendua definitzen duena.

BIGARRENA. Zumaiako Plangintzako Arau Subsidiarioen Aldaketaren hasierako onespina jendaurrean jartzea, hilabeteko epean, udaletxeko iragarki-oholean, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean eta lurraldean hedapen handiena duten egunkarietan iragarkia jarrita, Eusko Jaurlaritzaren Ebazpenarekin batera, zeinean ebazten den Zumaiako Plangintzako Arau Subsidiarioen Dokumentuaren Aldaketaren ondorioz ez dagoela ingurumenean ondorio esanguratsuak eragin ditzakeen ekintzarik.

Epe horretan espedientea aztertu nahi duen edonoren esku geratuko da, egokitzen jotzen diren alegazioak aurkez ditzan. Halaber, eta informazioa emate aldera soilik, udal honen egoitza elektronikoa egongo da eskuragarri: <https://www.zumaia.eus>.

HIRUGARRENA. Administrazio sektorialeki jakinaraztea, horien berri izan dezaten, eta dagokien kontsultak eta txostenak egin ditzaten. Horien gogoetak eta oharrak Planaren zehaztapenetan txertatuko dira.

LAUGARRENA. Turismoaren uztailaren 28ko 13/2016 Legean ezarritakoa kontuan hartuta, etetea erabilera turistikoko etxebizitzetarako eta erabilera turistikoko etxebizitza partikularretako logeletarako, era guztietako onspenak, baimenak, lizentziak, aurretiazko komunikazioak eta erantzukizunpeko adierazpenak ematea ostatu hartzeko establezimendu eta erabilera berriak ezartzeko eta horietan dagozkion obrak egiteko, bai eta lehendik zeudenak handitzeko ere, udalerrri osoan, urtebetez (1), iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hala jasota gera dadin, eta dagozkion ondorioetarako, ziurtagiri hau eman dut,

Zumaian,

IDAZKARIA,

O.E. ALKATEA,

Dokumentu kod.	2021HPNS0003-H23/00120
CUDO kodea	000.0081.AAAEE9L.R.4qMz
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAEE9LR.4qMz